

# B

BARREN

TOKIKOM



# Isildutako historia





# ZU zara berria

euskarazko komunikabideak,  
elkarlanean, berrituta, mugimenduan



Gure produktuak gertutik ezagutu  
nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzur:

[www.zuzaraberria.info](http://www.zuzaraberria.info)

[berriketan.info](http://berriketan.info)



# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era  
15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO  
TEORIKAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK**

**LEKUALDAKETA**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

## Eskerrik asko etortzeagatik

Domeka honetan hirugarrenez taularatuko dugu *Isladak* antzezlan, Azpeitian. Eta ziur nago elgoibartar mordo gerturatuko zaretela, batek baino gehiagok galdetu didazuelako kalean: “Noiz egin behar duzue berriz ere?”. Bada, domeka honetan bertan.

Azkenaldian medioetan asko agertu gara. Marketina barra-barra. Baina beno, horrek ez du hainbeste axola. Jendeak, gehienetan, azalekoa gogoratzen du bakarrik: pertsonaiak, aktoreen abileziak... Bai, polita da, baina horrek ere, ez du nire ustez hainbeste inporta.

Lau urte daramatzat Taupada Antzerki taldean, eta argi daukat zeinen izerdia dagoen taula gainean. Badakit zein obsesionatzen den antzezlan bere osotasunean imajinatu eta diseinatzeko orduan, eta badakit baita ere, zein ibiltzen den alde teknikoaren xehetasun guztietan murgilduta. Zeuekin ikasi dut antzerkiaz dakidan guztia. Zeuekin batera egin dut amets. Eta ametsak egi bihurtu daitezkeela ikasi. “Oso abila zara gauzak txertatzen”, esan zenidan behin. Eta etxera bidean, neure buruari galdetu nion: Non ikasiko nuen ba nik hau?

Desioa eta ilusioa konbinatzeari pasioa deitzen diot nik. Antzerkia da zuen pasioa. Eta kontajiatu didazue, bai, ondo kontajiatu ere!

Helduen mundu aspergarri honetan magian sinestea

ezinbestekoa dela ikasi dut zuekin.

Askotan brometan esan ohi dugu entseguetan “...eskerrik asko etortzeagatik”. Oraingoan ordea, bromak alde batera lagata, bene-benetan esaten dizuet: Eskerrik asko etortzeagatik.

Eskerrik asko, Larra. Eskerrik asko, Edurne.



Aitor Gisasola

“Helduen mundu aspergarri honetan  
magian sinestea ezinbestekoa dela ikasi dut zuekin”



Ni ere banaiz  
**BARREN!**

Zergatik babesten duzu **BARREN?**

**MIREIA ZABALA**

“Euskarazko astekaria delako,  
eta oso egokia delako  
Mendaron eta Elgoibarren  
gertatzen denaren gainean  
informatuta egoteko”.





# SATURRARANGO KARTZELAKO EGIAK, ARGITARA



*Saturrarango kartzelaren ikuspegi orokor bat.*

**“Ez negarrik egin, baina ez gaitzazue ahaztu”. Ana Morales (Leon, Espainia, 1917) Saturraranen preso egondako emakumearen berbak dira, Mikel Ruedak zuzendutako *Izarren Argia* filmean argitara emandakoak. Milaka emakume eta haur espetxeratu zituzten Saturraranen 1938tik 1944ra, preso zergatik sartu zituzten ez zekitela haietako asko. Tartean, Elgoibar-ko bi ahizpa ere bai. Bizi-baldintza tamalgarrietan biziraun zuten, hotzez eta gosez, eta asko bertan hil ziren. 36ko gerra-ko kapitulu beltza da, historiak nahi baino gehiagotan isildutakoa, baina ahaztea komeni ez dena.**

**Ainara Argoitia**

**H**il ziren arte, bizi-bizirik izan zituzten kartzelan egindako egonaldiko oroitzapenak Geronima eta Maria Alberdi Arrieta ahizpek (Olasope zentralekoak). Gerra hasi eta bat hartu zituzten preso, anaia Jose Elgoibarko kanposantuko hormaren kontra fusilatu zuten urte berean –1936ko abenduaren 26an hil zuten, espioitza leporatuta–. Gerora jakin zuten Erriberriko (Nafarroa) gizon batek salatu zituela. Hala azaldu du Lurdes Alberdi ilobak: “Gure osaba-izebak Oliten [Erriberri] pasatzen zuten uda, eta jakin izan balute hango batek salatu zituela... Gizon hura gure etxera etorri zen gero, diru eske. Dirua eman ezean, beste norbait salatuko zuela mehatxu egin zion gure aitari”. Lurdesen

aitak, Manuel Alberdik, ez zuen dirurik, baina senide batek lagatakoarekin joan zen Altzolako hotolean jarritako hitzordura, guardia zibil bi lekuko gisa hartuta. “Txantajea ikusita, Oliteko gizona preso sartu zuten Ondarretan, baina ihes egin zuen denbora gutxira. Ihes egin-edo...Norbaitek lagundu-ko zion, jakina, baina hori esan zuten”, gehitu du Lurdesek.

Heriotza zigorra ezarri zieten Geronima eta Mariari ere, baina azkenean, “Francok dena kontrolpean hartu zuenean-edo”, zigorra sei urte eta zazpi hilabetera murriztu zieten. “Kalbario horretan” Ondarretako kartzela nahiz Saturrarangoa ezagutu zituzten, gerra bere gordinen. Saturrarango kartzelako zuzendariaren sukaldari izendatu zuten

Geronima, eta horrexegatik abantaila bat edo beste izan zituen gainerako presoan aldean. Alabak jaunartzea egin zuen egunean, esaterako, kartzelara sartzen laga zioten alabari, amak ikusi zezan. Gizalegezko keinu bat, baina ez gehiagorik.

Geronima eta Maria hil ziren, baina haien ondorengoek ez dituzte ahaztu. Ezta Jazinto Alzibarrek ere, Elgoibarren bizi den itziartarrak. 12-13 urte zituela egunero-egunero joaten zen kartzelara, esnea eta jatekoa eramatera. Inoiz ez zituen ikusi, baina.

## Mojak, presoazain

Saturrarangoa emakumezkoen kartzela zenez, Francoren Armada ezin zen barrura sartu, eta militarren ordezkari frankistarekin bat egin zuten Mesedetako Amaren Ordenako mojak arduratzen ziren hura kontrolatzeaz. Mojak ziren presoazainak. Mojen nagusiak, Maria Aranzazu amak, *Pantera zuria* ezizena zuen, habitu zuria janzten bazuen ere, maltzurra zelako oso, preso ohien esanetan. Antonio Vallejo Najera (1889-1960) komandante frankistaren ordenak betetzen zituen –Militarren zerbitzu psikiatrikoen burua izendatu zuten–, eta gupidagabea zen oso presoekin. Saturrarango presoek eskaintzen zieten tratua hain zen zitala, hango moja batzuk habitua laga zutelara, egiten ari zirenekin ados ez zeudelako.

## “700 lagunentzako tokian, 1.700 egotera iritsi ziren”

Anjel Bazterretxea (1936, Mutriku) Mendaroko abadeak Saturraranoen preso egondako hainbat emakumeren esanak gogorarazi dizkigu, seminarista lagun batek jasotako informazioa baliatuta. “Tratu txarrak jasan zituzten emakumeek; gerran dena da libre, badakizu. Denetarik mojak izango ziren han ere, baina batzuk behintzat desastre hutsak, zitalak oso”, dio ordenagailuko pantailan daukan txostenari begira. Karmina eta Sagrario Merodio preso ohiei hartutako bi adierazpen irakurri ditu: “Mojak goardian egoten ziren patatak gordinik jaten genituelako, pabiloi batetik bestera patatak zurizera joaten ginenean”; “Jangelan, hitz bat, irifar bat, nahikoa zen sotorra, zigor gelara, bidaltzeko”. Sotoa putzu handi bat izaten zela esan du jarraian, eta ura sabeletik gora izaten zutela zigortutakoek. Emakume haietako asko errepublikarrak ziren, eta haiek menperatzea eta makurraraztea nahi zuen Francoren erregimenak. Vallejo Najera komandantearen hitzak irakurri ditu: “Iraultzaileak arrenkura, gorrotoa eta erresumina du, eta antolatutako gizartearen ordena aldatu nahi du”.

*Geronima Alberdi, Luciano eta Nati Elkoroiribe seme-alabekin, Saturrarango kartzelan, alabak jaunartzea egin zuen egunean.*



*Preso talde bat, moja batekin, kartzelan. Mojaren ondoan, eskubi aldera, Maria eta Geronima ahizpak.*

6 bat urte zituenean ezagutu zuen Anjel Bazterretxeak Saturrarango presoondegia. “Debatik etortzen zen autobusean joan nintzen domeka eguerdi batean, aitarekin, presoek jana eramatera”, dio. Ez dauka gogoan Mutrikuko Udalak, herriko parrokoak edo zeinek eskatu zien herritarrei laguntza, baina Debatik, Mutrikutik eta Ondarrutik jende asko joaten zela dio. “Etxean jaten genuena eramaten genien”. Lleidako emakume bati eramaten zioten “erropa eta jateko apurra” eurek, huraxe izendatu zirelako, baina libre laga zuten arte ez zuten emakumea ikusterik izan. “Libratu zutenean agurtzera etorri zen emakume hura. Errepublikar baten laguna-edo izango zen, eta seguru herri-herrikoek salatu zutela. Zortzi bat urte egin zituen preso.”

Presoak “bata bestearen gainean” ibili behar izaten zirela dio Bazterretxeak. “Ez nituen ikusi, baina 700 lagunentzako lekuan 1.700 ere egon zirela jakinda...”. Kartzela zena, apaiztegi izan zen gero, 1944tik aurrera, eta ondo ezagutu zituen Anjelek eraikin haren barrunbeak. 1950etik 53ra bitartean, apaizgai gehien egon ziren garaian, 220 lagun egon zirela dio. “Atera ezazu kontuak zein baldintzatan egongo ziren presa haiek”.

## Ehundik gora hildako

Kartzelan jende asko hil zela dio Anjel Bazterretxeak [177 heriotza daude erregistratuta], eta hildakoak gurdiz eramaten zituztela Mutrikuko hilerria. “Ondarrutik zatorzela herri sarreran dago hilerria Mutriku, eta nik neuk sekula ez nuen ezer ikusi, baina bidean dauden baserrietakoek bai, askotan”, azaldu du. Jazinto Alzibarrek 12-13 urte zituen Saturrarango kartzela lehenengoz ikusi zuenean, baina ondo gogoan dauka irudi hori. “Zenbat atzera-aurrera egiten zituen gurdi hark”, dio.

Itziariko Aitzuri-aurre baserrian sortua da Jazinto, baina ume-umetan ama besoetakoaren baserria, Saturrarango Arbelaitzera, joan zen, etxean denak mantentzeko adina ez zutela-eta. Eskolara joan aurretik, goizero-goizero, pare bat osterara egiten zituen kartzelara karretilla hartuta, presoek esnea eramatera. “Burdinezko ate handi bat zegoen, baina gu ate txikitik sartzen ginen. Atarian bertan lagatzen genituen esne botilak. Ikusi ere ez genituen egiten guk presoak. Presoak kamioietan ekartzen zituzten, eta orduan bakarrik zabaltzen zen ate handia”, gogoratu du.

Begi aurrean balu bezala deskribatzen du Jazintok Saturrarango kartzela izandakoa: “Kartzela buelta osoan soldaduen garitak zeuden, eta tarteka militarrek etortzen ziren kanpotik. ‘Militarrekin argi ibili’ esaten ziguten etxean. Ikaragarriko beldurra genien. Presoek bisitan joaten zitzaizkien ere ezin izaten zuten etxekoa besarkatu. Klausurako mojen konbentuetan moduan, hesi artekin ikusten zituzten, eta bi soldadu izaten zituzten beti alde banatan”. Begiak betetzen zaizkio, eta hasperen egin du. “Santanderko puntatik etorri eta ordubete bakarrik ematen zieten senidearekin egoteko”, gehitu du.



Presoen senide haietako asko Arbelaitzen gelditzen ziren lotan, hurrengo egunean beste ordubetetxo bat lagako zietelakoan. Arbelaitzen bazekiten ondo zer zen sufrikario hori. Izan ere, Txomin Alkorta etxeko semea, Valentzian zuten preso. Alkortak *Zeruko Argian* idazten zuen, eta 18 urte zituenean sartu zuten preso, etxe ondoko baserritar batek salatu zuelako. “Inbidia eta ezinikusia, badakizu”. Hamar urte egin zituen preso Arbelaitzko semeak, eta Valentziako familia batek hartu zuen hari jatekoa eramateko kargua denbora horretan. “Semea egoera horretan eukita, gure izebak eskuzabal hartzen zituen beti Arbelaitzera laguntza eske etortzen zirenak. Zeharo eskastuta bueltatu zen Txomin gaixoa!”.

Jazintok gogoan dauka preso egondako emakume bat bizi zela eurekin: Raquel Jimenez. Eskolak ematen zituen Arbelaitzen, inguruko 20 bat umeri; “Tartean, Txomin salatu zuten etxekoei ere bai. Gerra denbora zen, eta gure osabak beti esaten zuen hobe zela isilik egon. Salatu duten horien gezurrak baino gutxiago balio du gure egiak’ esaten zuen”, nabarmendu du. Behin, baina, guardia zibilak joan zitzaizkion etxera. Eskolak emateari lagatzen ez bazion berriro preso hartuko zutela ohartarazi zioten. “Zenbat negar ez ote zuen egin emakume gaixo hark.

Eskolak emateari utzita, apopilotza nola ordaindu behar ote zuen galdetzen zuen behin eta berriz. Nire izekok, baina, ez kezkatzeko esan zion, etxeko bat gehiago zela-eta”.

Beldurra handia zela dio Jazintok. Jakin-nahia ere bazen, baina beldurrak uzkuratzen zituen. Kartzela atzeko zelaietatik ikusten zituzten emakume presoak errekan arropa garbitzen, baina besterik ez. Anjel Bazterretxeak ere aitortu du behin saiatu zirela hondartza ertzeko haitzetatik presoak ikusten, baina laster uxatu zituztela goardiek.

Soldadu guztiak, baina, ez ziren berdinak. “Batzuk bertakoak ziren, eta haiek ere beldurrez bizi ziren. Gauean, kanpora irteteko baimena ematen zieten, Arbelaitzera etortzen ziren batzuk, ogitarteko bat jan eta sagardoa edatera. Euskaldunak ziren asko, bertakoak”, esan du Jazintok. Gogoan du behin nola esan zion soldadu horietako batek eulirik ere ezin zela sartu kartzelan, bestela eurenak egin zuela-eta.

Saturrarango kartzelako kontuek urte asko egin dute isilean, baina 36ko gerrarekin lotutako beste hainbat pasartek bezala, kontu ilun haiek hasi dira argia ikusten.

## 36ko GERRAKO AZTARNEN BILA

Aurrera egingo bada, historia ezagutzea ezinbestekoa da, eta Elgoibar1936 taldekoek ondo dakite hori. Memoria historikoa berreskuratzeko lanean dabilta azkeneko urteotan, ezkutukoa azalera atera nahian. Iñaki Odriozola eta Hodei Otegik osatzen dute taldea, baina zeregin horretan herritar askoren laguntza izan dute. “Felix Etxeberria *Parapan-*ek asko lagundu digu. Berak lan handia zeukan eginda aurretik, eta hari tiraka hasi ginen gu”, azaldu du Hodeik. Elgoibar1936 taldea Lau Haizetara koordinakundean sartuta dago, eta beste herri batzuetako esperientzietan oinarrituta ari dira lanean. Lau zutabetan banatzen dute Elgoibar1936 taldekoek euren lan jarduna: 36ko gerraren harira fusilatutako gorpuzkinak lurpetik atera eta ehorzketa duina egin; artxibategietara joan eta ahal den bezain beste dokumentazio bildu, lekukoek testigantzak jaso eta herrian dauden ikur frankistak identifikatu eta haiek kenduaraztea.

Joan zen barixakuan, memoria historikoaren autobusa Elgoibarrera zetorrela-eta, orain arte batutako informazioaren zati bat jendearean aurkeztu zuten, Nafarroa Plazan: Gerran fusilatutako 21 lagunek izen-abizenak, gerran ihes egindakoenak ([www.elgoibar1936.org](http://www.elgoibar1936.org) helbidean dago lista osoa), kontzentrazio eremuetan egondakoak



*Elgoibar1936 taldekoek joan zen barixakuan jarritako panel informatiboak.*

(hamahiru), kartzelatu zituztenak (zortzi), Francoren Erregimenak bazterretako irakasleak (sei), gerrako umeak...Datu horiek lortzeko, orduak eta orduak igaro dituzte artxibategietan eta garai hartako plenoetako agiriei begira, eta dozenaka elkarrizketa egin dituzte, lekukotza zuzenen bila. “Gure lehentasuna lekukotzak batzea da orain. Izan ere, orduko jende asko joan da zoritxarrez, eta haiekin batera informazio asko galdu dugu”, adierazi du Iñaki Odriozolak. Hori dela-eta, laguntza eskatu diete herritarrei, eta email bat ([elgoibar1936@gmail.com](mailto:elgoibar1936@gmail.com)) eta bi telefono zenbaki jarri dituzte pistaren bat eman dezaketenen eskura: Iñaki (690 670 021) eta Hodei (605 772 285)

Hain justu ere, lekukotza horietako bati esker, aurkikuntza handia egin zuten orain hiru bat urte (2004tik jakinaren gainean zeuden). Madarixa Berri baserriko Juan Mari Aranbarreren bitartez jakin zuten Nazionalak exekutatu zuten miliziano bat non lurperatu zuten, 6 urte zituenean bere begiekin ikusi zuelako aitak zelari ehortzi zuen. 1936. urteko irailaren 21ean atxilotu eta exekutatu zuten miliziano hori, Nazionalak Azkaratetik sartu zirenean, eta Madariaga auzoko karobi batean –frontoitik 50 metro eskasera– lur eman zioten bertako baserritarrek hildako gudariari. Aranzadikoen laguntzarekin, atera zuten gorpua –ustez eibartar gizonezko batena–, eta Azkoitiako hilerrian lurperatu zuten.



**Plaza Txikiko zuhaitzen ondoko zuloak oso arriskutsuak dira:**

“Plaza Txikiko zuhaitzen inguruan zulo handiak daude, eta oso arriskutsuak dira. Eguenetan merkadilloa jartzen dute zonalde horretan, eta salmenta postuak zuhaitzetatik oso gertu geratzen dira. Joan zen asten bi emakume erori ziren zuloetan estropozu eginda, eta lehenago ere erori izan da jendea. Zulo horiek estaltzeko moduren bat aurkitu behar da, ezbehar larriren bat gertatu aurretik”.



**Jendea bizkorregi ibiltzen da bizikletan kalean:** “Jende asko oso bizkor ibiltzen da bizikletan kalean, eta noiz harrapatuko gaituzten beldurrez ibiltzen gara. Atzetik etortzen dira, eta ziztu bizian pasatzen dira ondo-ondotik. Lehenengo bizikleta zaharrek bazuten txirrina, baina oraingoek ez daukate ezer, eta entzun ere ez ditugu egiten. Kalean oinezko asko ibiltzen gara, eta eskertuko genuke bizikletan polikiago ibiltzea”.



**Txalo bero bat Karakate elkartekoei, perretxiko erakusketa antolatzeagatik:**

“Karakate mikologia elkartekoei sekulako lana egiten dute urtero perretxiko erakusketa antolatzen, baina batez ere, umeei erakusten egiten duten lanagatik merezi dute txalo bat. Perretxiko mota desberdinak erakustez gain, basoak nola zaindu behar diren azaltzen diete, eta hori da garrantzitsuena. Askotan isilean pasatzen da elkartekoei egiten duten lana, baina guri oso interesgarria dela iruditzen zaigu”.



Zuen kezak, gaiderrak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgolbarkoizarra.com](mailto:barren@elgolbarkoizarra.com) 943 744 112

I. URTEURRENA

## ASCEN NUÑEZ GAÑAN

2009ko azaroaren 11n hil zen.

*Alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin  
oroimenean izango zara  
zu beti gurekin.*

Zure lagunak





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Sebas & Arantxi**

**Ezkontza**

Haizea bezala eskuen artetik ihes egiten duzu eta momentu baten galduta bakarrik hustuta uzten nauzu behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan baina badakit hor zaudela izkutututa nire bihotzean zure irrifarra gogoan ezin ahaztu eta ezin ikutu zergatik ez zauden nirekin ezin dut jasan ezin dut ulertu milaka arrazoi korrika hasti ta inoiz ez gelditzeko itxaropen hitzek ez dute balio zu berriz sentitzeko behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan baina badakit hor zaudela izkutututa nire bihotzean eta agertzen zara laboan kantu zaharretan eta lapatzeko olatu bortitzetan ez zaitut inola berriz galdu nahi laztana baina goizeko ilargia bezala ningandik urruntzen zara. Presoak etxera!

**Edurne Lasa**

**Zorionak, Goiena!**

1988an ikusi zuen argia Arrasate Presek. Herriko berri euskaraz emango zuen aldizkaria asmatu zuten Arrasateko euskaltzaleek. Baina proiektua ez zen interesgarria izan Arrasaterako bakarrik, eta inguruko herrietan ere perretxikoak moduan hasi ziren aldizkariak sortzen. Eta Debagoiengan ez ezik, inguruko bailaretan ere jo zuen euskal aldizkarien aldeko haizeak. Hala sortu ziren Eta...Kitto, BARREN, Pil-

pilean, Drogeteniturrri edo Berriketan aldizkariak. Euskara elkarteon proiekturik arrakastatsuenak izan dira, beharbada, aldizkariak. Eta hasieran txikiak zirenak hazi egin ziren. Baina hazi ez ezik, aldatu egin dira, eta ibilbide horretan, Debagoiena aitzindaria izan zen berriz ere. Herrietako aldizkariak oroimenaren zakuan laga eta bailara mailako proiektua prestatzeari ekin zioten. Hala, 2000. urtean, Goiena proiektua sortu zuten.

10 urte pasa dira ordutik, eta haien bailarako proiektu komunikatibo garrantzitsuena da Goiena gaur egun. Bi aldizkari, telebista bat eta Internet daukate martxan, eta 50 langiletik gora egiten du lan bertan. Azaroaren 11n ospatu dute 10. urteurrena, eta zorionak eman nahi dizkiegu gure laguneri bailararen parte honetatik.

Eta gurean, zer? Gurean ere emankorra izan da herri aldizkariaren ibilbidea, baina ezin gara atzera begira geratu. Komunikabideen arloan aldaketa handiak eman dira, eta handiagoak emango dira, eta guri ere badagokigu gure jarduna aztertu eta ego-kitzapenak egitea. Hasita gaude bailara mailako komunikaziora iristeko lehen pausoak ematen, eta datozen hilabeteetan ikerketa-lan bat egingo dugu proiektua egingarria den aztertzeke. Eskuartean daukagun erronka argia da: Debarrenean euskartzeko hedabideen indarra eta eraginkortasuna biderkatzea.

**Debarreneko euskara elkarteak**

**Anoetako proposamena epaitegirira?**

Sei urte dira ezker abertzaleak Anoeta-ko proposamena belodromoan aurkeztu

zuela. Bake bidean ekarpen nabarmena izan zena egiteagatik, gure herrikide, lagun eta bozeramaile den Arnaldo, berriro epaitu dute. Proposamen hura gabe, ulerteziak liriteke ondoren izan ziren elkarrizketa saio eta abarrak. Gaur egun egiten dugun apustua ere, proposamen haren itzalagatik iritsi zaigu, neurri batean. Alderdi gehienek begi onez ikusi zuten, baita Gobernuan den PSOEk ere, eta gaur, gehiengoarentzat, tresna baliagarria izaten segitzen du. Ez da proposamena bera epaitu nahi izan ordea, ez eta ekitaldia ere, antolatzaileak ez baitira epaitzen. Soilik, ekitaldian hitza hartu zuten, Joseba Alvarez, Joseba Permach eta Arnaldo. Kartzela zigorra zein urte luzetarako inhabilitazioa eskatzen dute. Gero eta argiago dago estatuak zer bilatzen duen. Ezker abertzaleko kideak, epaituak eta zigortuak agertuko diren argazki bat nahi du. Ezker abertzalean, zein herri honentzat aldaketa nahi duen jendartean, etsipena eta frustrazioa zabaldu nahi dituzte. Badakigu, ordea, egungo markoa zein gatazka gaiditzea inoiz baino gertuago dagoela. Jasaten dugun errepresio guztia- ren gainetik, ezker abertzalea arduraz jokatzen ari da. Proposamenak etengabe eginez, akordioak erdiesteko gaitasuna erakutsiz eta egoera berria sortzeko ekarpenak plazaratuz. Arnaldok horrenbeste lan egin duen bidean, guk ere, indarrak bilduko ditugu. Determinazio osoz egingo dugu, lehenago edo beranduago garaipena Euskal Herriarena dela badakigulako. Besarkada bat Arnaldo, zuri, eta beste baina Joseba bie.

**Elgoibarko ezker abertzalea**

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 744 112  
 Faxa: ☎ 943 743 704  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 743 704  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel  
 MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.  
 INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Andres  
Alberdi

Esperantzak, ilusioak eta ametsak bizitzaren berezko osagai dituk, Angel. Hori denok zekiagu. Lehen eta orain, haur, gazte nahiz heldu. Baina denbora ez duk alferrik pasatzen, eta perspektiba aldatu egiten duk. Irakasgai ona duk denbora, onena.


Behin baino gehiagotan esan izan zidatek: zu oraindik gaztea zara! Eta, hori entzuten dudak bakoitzean, pasadizo batez gogoratzen nauk: telebistan, Espainiako ez zekiat zein partetan izandako atraku baten berri ematen ari zituan, eta pantailan, laurogei urtetik gorako emakume horzgabe batek “ni eta nire adineko beste neska batzuk geunden bankuan pentsioa kobratzera joanda, eta...”.

### “Konturatzen nauk gaztetako sabeleko tximeletak harri-kozkor bihurtuz joan zaizkidala”

Amama hori bezala, hirurogeiak gainean jada, oraindik gaztea nauk bai, kasik mutiko; baina ez nauk (ez nizek nahi, esan behar al nuke?) inozoa, eta gauza batez kontziente nauk: askoz ere hurbilago zeukaat bukaera hasiera baino.

Konturatzen nauk, urteen joan-etorrian, gaztetako sabeleko tximeletak harri-kozkor bihurtuz joan zaizkidala; orduko buruko txoriak ihesean joan zirela/direla azkar eta aidean; zerutik espero nituen izarrek inguruan neuk bilatu behar izan ditudala; jasandako desilusioen seinale, eszeptikoagoa naizela... Perspektiba aldatuz joan zaidak ezinbestean. Onerako, ustez.

Eta, oraindik ere, erretiroaren atarian, esperantzari leihoa irekita, ilusioak tinko bizirik eta ametsak posible direla pentsatuz jarraitu nahi nizek, neure buruari iruzurrik egin gabe. Denbora ez duk denontzat berdin pasatzen, baina, zernahi dela ere, denbora berriaren gestioa ere nire esku nahi nizek luzaroan eta askatasunean.



Anjel  
Ugarteburu

Kontuz, Andres, gaztea zara edo gazte zagoz behin eta berriz entzuten badok! Ez juek horrelakorik entzuten benetan gazte izan eta dagozanak. Hiru hogeiko eta piko soinean izan arren, tente, bizi eta, akaso, erakargarri be ikusten hauten seinale dok hori. Pozik egoteko moduan hago.

Ume-umetatik dakiagu bizidun guztion zikloaren pausoak zeintzuk diren: jai, hazi, heldu, zahartu eta hil. Pauso guztiak emon barik hiltzen dituk asko eta asko, artean ume, gazte edo heldu izanarren, pausoa amildegi bihurtzen zaielako. Zenbat historia triste eta errukarri hainbat lekutan! Umerik erdiak, umetako ilusiorik bizi barik hiltzen dituk, tamalez. Maitasunaren eta laztanen beharrean zituan zenbat gorputz eta gogo zanpatu ete jituk gorrotoak eta jipoiak mundu zabal eta estuan! Maitatua eta maite izateko jai eta, ezer ulertu ezinik, bidea osatu barik hil behar, pausoa estropezu bihurtuta.

### “Halanda be, ‘oraindik gaztea zara’ luzaro entzuteko moduan izatea espero juat”

Ziklo osoa ilusioz gainezka, langabeziarik barik eta herrian bertan egin duenak bajaukak eskerrak emoteko motiborik.. Hi eta ni bide horretatik goiazak, Andres, autu honek erakusten duenez. Gorputza okertu eta zimurtu egiten dok, baina esperantzak, ilusioak eta ametsak beti dituk gazte eta hortxe sortzen dok hainbesteko kezka sortzen digun desoreka. Nahi eta ezin horretan. Halanda guzti be, “oraindik gaztea zara” luzaro entzuteko moduan izatea espero juat.


Denbora berria oso emankorra izango duk, egon ziur. Oraindik ametsak bizi egin behar jittuagu, Andres, aje batzuk gorabehera, gazte gagozak eta.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



## Arnaldo Otegi epaitzen hasi dira Auzitegi Nazionalean, Anoetako ekitaldian “terrorismoa” goratu izana leporatuta

Epaiketa salatzen, bilkura berezia egingo dute bihar Plaza Handian, 12:30ean

Atzo hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalean Arnaldo Otegi, Joseba Alvarez eta Joseba Permachek kontrako epaiketa. 2004ko azaroaren 14an Donostiako belodromoan Batasunaren izenean egindako bake proposamenean "terrorismoa" gorestea, desobedentzia egitea, legez kanpoko bilkuretan parte hartzea eta badaezpada-ko neurriak haustea leporatzen dizkiete hiru auzipetuei. Fiskalak hemezortzina hila-beteko kartzela eskatu du haientzako, eta hamabina urteko inhabilitazioa. Ermuko Foroak, berriz, bosna urteko kartzela eta hogeina urteko inhabilitazioa eskatu du.

“Anoetako Proposamena alderdi gehienek ontzat jo zuten, Euskal Herriaren bake biderako”, gogorazi du horren harira Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak. Auzipietuen abokatuak ere haien errugabetasuna defendatu du behin eta berriz.

Jone Goirizelaia auzipietuen defentsako abokatuak adierazi du “benetan Batasunaren jardun politikoa eta bake proposamena epaituko” direla auzitegian. Auzipietuek eurek, berriz, adierazpen hura berresten dutela nabarmendu dute. “Negoziazio prozesu baten bidez bake justu eta

iraunkorra lortzea da ezker abertzalearen helburua”, esan berri du Joseba Permachek.

Arnaldo askatu, politika askatu plataformak epaiketa salatu du ohar baten bidez. “Bakegintzan jardun behar luketenak espetxean eduki nahi dituzte, herri honi bere etorkizuna eraikitzea galeraziz”, dio hitzez hitz agiri horretako pasarte batek. Otegi, Permach eta Alvarezen kontrako epaiketa salatzen, eta “bakerako bideak inork galerazi ez dezan eskatzeko”, bilkura berezia antolatu dute biharko. Plaza Handian egingo dute bilkura hori, 12:30ean.

### Adostasunik ez Oroimenaren Eguneko ekitaldian



Biktimak izan zituzten gogoan eguaztenean Elgoibarko pleno aretoan EAJko, PSE-EEko eta PPko zinegotziek, Oroimenaren Eguneko ekitaldian. Eusko Legebiltzarrean gertatu bezala, Elgoibarren ere EAko eta Aralarreko zinegotziek ez zuten parte hartu ekitaldian, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak euskaraz eta Ovidio Campello PSE-EEko zinegotziak gaztelaniaz irakurri behar zuten testuak (Eusko Legebiltzarreko mahaiak adostutako testua) ez zielako aipamenik egiten Espainiako segurtasun indarrek eragindako biktimei. Biktima guztien aitortza eta errekonozimenduak erabatekoa izan behar duela adierazi zioten Izaskun Soralezek eta Jon Peli Uriguen Aralarko eta EAko zinegotziek BARRENI, biktimen aldeko adierazpenak “biktima guztiak” jaso behar dituela alegia.

Ekitaldian, Jaime Arreseren, Patxi Zabaletaren eta Jose Expositoren –ETA eta Komando Autonomo Antikapitalisten biktimak– senideek parte hartu zuten, eta ekitaldi instituzionalaren ondoren, lore sorta bat utzi zuten Giza Eskubideen Parkean (Usua) dagoen Gernikako arbolaren ondoan.



## Izena **Angel Bazterretxea**



Mendaroko eta Mutrikuko abesbatzek omenaldia egingo diote domekan Angel Bazterretxea Mendaroko parrokoari, 50 urte egin dituelako apaiz. Uztailaren 4an inguruko herrietako parrokoek egin zioten omenaldia bere jaioterrian, Mutrikun, eta orain, Mendaroko herriak egingo dio, herrian bertan. 12:30ean izango da ekitaldia Trinitate elizan. Omenaldiaren ostean Aizpe elkarte gastronomikoan egingo dute bazkaria.

## Zenbakia **%2,1**

2011rako udal zergak %2,1 igoko dituzte, oro har, baina zenbait salbuespen ere izango dira: zaborraren gaineko zerga, esate baterako, %3,17 igoko dute. Azken urteetan baino iguera txikiagoa aplikatuko diote aurten zaborraren gaineko zergari, eta erabiltzaile bakoitzak lau euro gehiago ordaindu beharko ditu datorren urtean zabor bilketa zerbitzuagatik. Era berean, terrazak jartzeagatik, hamabost euro ordaintzen dituzte tabernariak metro koadroko, eta datorren urtetik aurrera, 25 euro ordaindu beharko dituzte. Azkenik, ordaindu beharreko aparkalekuen tarifak ere onartu ditu Osoko Bilkurak: 0,50 euro ordaindu beharko dira, egunez (8:00etatik 20:00etara), eta gaeuz, berriz, 0,125 euro. Dena dela, argi utzi du Alfredo Etxeberria alkateak erabaki honek ez diola Plaza Txikiko OTA-TAO zerbitzuari eragingo, eta aurrerantzean egin daitezkeen aparkalekuetan aplikatuko dituztela bakarrik.

## Irudia **Ainara Ladronen aldeko erretratua**

Ainara Ladronen aldeko erretratua atera zuten zapatuan hainbat herritarrek. Segiko arduradunetako bat izatea leporatuta, urriaren 27an atxilotu zuen Espainiako Poliziak Ladron, Grande-Marlaska Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz. Animoak eta babesa eskaintzeko asmoz atera zuten argazkia, eta Ainara Ladroni berari bidaltzeko asmoa dutela adierazi dute Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek.



## **Gurasoentzako bi hitzaldi antolatu dituzte Kiribilka Egitasmoaren barruan**

Kiribilka Egitasmoaren barruan, gurasoentzako bi hitzaldi antolatu ditu Elgoibarko Izarrak. Iñaki Eizmendi gizarte hezitzailea izango da hizlaria, eta besteak beste, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egin diezaieten laguntzeko oinarriak azalduko ditu. Lehenengo hitzaldia gaztelaniaz izango da, azaroaren 16an, eta bigarrena hilaren 29an izango da, euskaraz. Bi saioak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 18:30ean.

## **1942an eta 1970ean jaiotakoen ospakizunak**

1942an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute Sigma jate-txean, azaroaren 20an. Interesatuek 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxan (Caja Laboral), azaroaren 15erako: 3035 0007 28 0071120102. Bestalde, 1970ean jaio eta Ikastolan ikasitakoek kinto bazkaria antolatu nahi dute. Bertan parte hartzeko interesa dutenek ondorengo helbide elektronikora bidali behar dute mezua: [ikastola1970@gmail.com](mailto:ikastola1970@gmail.com)

## **Gabon Zahar Feria abenduaren 31n izango da**

Aurtengo Gabon Zahar Feria abenduaren 31n izango da, ostiralean, eta salmenta posturen bat jarri nahi duenak abenduaren 16a baino lehen egin beharko du eskaera Kultura Sailean. Informazio gehiago 943 742 158 telefonon.

## **Miren abeslariaren kontzertua, Mendaron, azaroaren 20an**

*Laztanten nauen eskua* diskoa kaleratu du Miren Fernandez abeslari zarauztarrak, eta hori aurkezteko kontzertua eskainiko du Mendaron, azaroaren 20an. San Agustin antzokian izango da kontzertua, 22:00etan.

Aitaren abizenak ez du lehentasunik izango aurrerantzean, eta gurasoak ados jarri ezean, alfabetoaren ordenak erabakiko du umearen abizena.

## Jarriko zenioke amaren abizena zure umeari?



**Eva Palacios**  
36 urte, abokatua

Nik senarraren abizena jarri diot umeari, baina ondo ikusten dut amarena jartzea, bestela emakumearen abizena galdu egin daitekeelako. Aukeratzeko eskubidea egotea ondo dago, baina oraindik gutxi dira amarena jartzea erabakitzen dutenak. Ohiturak aldatzea kostatu egiten da.



**Javier Alberdi**  
56 urte, komertziala

Bai, berdin-berdin zait aitarena ala amarena jartzea. Hori bai, umeen kasuan gauza bakarra da segurua: ama. Hortaz, amaren abizenak garrantzia handia dauka. Oraindik, baina, aitaren abizena jartzen dute gehienek, eta us-te dut ohitura hori aldatzeko denbora beharko dela.



**Barhoune Brahim**  
25 urte, kamareroa

Bai, amak eta aitak eskubide berbera dutela iruditzen zait. Amak, gainera, ardura handiagoa dauka, eta aitaren lana errazagoa da. Aita erregearen pare bizi da! Gure herrialdean aitaren abizena bakarrik jartzen diegu umeei. Hemen biak jartzen dizkiozue eta hori hobeto dago.



**Angel Martin**  
71 urte, jubilatua

Bai, arazorik gabe. Senar-emazteak ados jarri eta nahi duten abizena aukeratu dezatela. Nik lau seme-alaba ditut, eta nire abizena dute, baina ondo ikusten dut emaztearen abizena jartzea. Azken batean, umeen ama nor den gauza jakina da, baina aita nor den, auskalo!


I. URTEURRENA

## ASCEN NUÑEZ GAÑAN

2009ko azaroaren 11n hil zen.

*Ascen maitea etzinan bizi  
euskaldun era bigurriz  
gorputzez handi ez izan arren  
bai gizatasun neurriz  
auzotarren lankidetzan  
ahots finez eta irriz  
zu bezalako lagun onik  
sortuko ote zaigu berriz.*

Zubibai elkarteko lagunak





## Erretratu zaharra



**1963**

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri du BARRENEko erredakziora. 1963. urteko argazkia da, eta Morkaikora bidean aterata dago, San Migel inguruan. Argazkian azaltzen diren neskek 11 urte inguru izango dituzte. Gogora ditzagun zeintzuk diren: **Lehenengo ilaran:** Mertxe Artetxe, Isabel Etxaniz, Maite Vitores, Mari Carmen Aizpitare, Kontxi Juaristi, Bego Iriondo, Maria Jesus Ibañez, Alitxu Bilbao, Charo Etxeberria, Begoñita Ortueta. **Bigarren ilaran:** Purita Mujika, Maria Elena Ansola, Amaia Rivero, Miren Juaristi, Rosarito San Martin, Mari Carmen Agirregomezkorta, Bego Bilbao, Maria Victoria Jauregi. **Hirugarren ilaran:** Amaia Mujika, Mari Paz Garcia, Itziar Juaristi (†) Arantxi Bilbao (†).


I. URTEURRENA

## ASCEN NUÑEZ GAÑAN

2009ko azaroaren 11n hil zen.

*Ez nau izutzen negu hurbilak  
uda betezko beroan,  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan.  
Ez zaittugu ahazten, Ascen.  
Maitte zaittugu.*

Zure familia



## 50 urteko ibilbidea liburu batean jaso du Gure Bide elkarte gastronomikoak

Laurentzi Gorostiza eta Koldo Lizarralde elkarteko bazkideek idatzi dute liburua

**G**ure Bide elkarte gastronomikoak liburu bat argitaratu du elkartearen 50. urtemugan, eta gaur aurkeztuko dute udaletxeko pleno aretoan, 20:00etan. Laurentzi Gorostiza eta Koldo Lizarralde Gure Bideko bazkideek elkarlanean idatzi dute liburua, eta proiektuak Elgoibarko Udalaren, Bidelanen, Kutxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du. Aurkezpen ekitaldira hainbat txirrindulari gonbidatu dituzte, elkarte bera hasiera-hasieratik egon delako txirrindularitzari lotuta. Alberto Leanizbarrutiak, Txomin Perurenak eta Jokin Mujikak ziurtatu dute etorriko direla, baina gehiago ere izango direla iragarri dute Gure Bidekoek, nahiz lerro hauek idazteko unean, ez diren ausartu izenik ematera, lotu gabe zituztelako artean.

Txirrindularitzarekiko zaletasuna zuten bi koadrila batzean sortu zen Gure Bide txirrindulari elkarte: Umore-Ona eta Beti Egarrri. 1959. urtean elkartu ziren lehenengoz bi koadrila horiek Leonardo tabernako erreserbatuan. Elkartzeko txoko bat bilatu



*Juan Etxaniz txirrindularia, herritarrez inguratuta. Liburutik hartutako irudia da.*

eta batzen zituen zaletasun hori aurrera eramatea. Horixe bilera hura antoaltzeko bi arrazoi nagusiak. Hala sortu zuten Gure Bide. Ordutik, lan handia egin du elkarte horrek txirrindularitza bultzatzen, baina egingdako guztiaren gainetik bat nabarmendu dua: Juan Etxanizen omenezko lasterketa.

Euskal Herrian entzute handia hartu du proba horrek, besteak beste proba hori irabazi dutenetako askok eman dutelako profesionaletarako saltoa. Abuztuaren 23an jokatzeko da lasterketa hori, eta San Bartolome jaietako egitarauko lehenengo ekintza izan da azkeneko urteotan.

## Magosto Eguna antolatu dute biharko, gaztainari gorazarre egiteko



Gaztañerre egunak indar handia izan du beti Debarrena eskualdean. Gure arbasoen sasoiak, elikagai funtsezkoa izan ohi zen gaztaina, eta hortik dator urteetan iraun duen usadioak. Orain, gaztainak ez dira lehen bezain ugariak Euskal Herrian, baina kanpotik ekarritakoekin bada ere, ohiturari eusten diote hainbat herritan. Baita Elgoibarren ere. Altzolan, esaterako, Gaztañerre Eguna ospatu zuten domekan. Iaz berreskuratu zuen aspal-diako ohitura Zubibai elkarteak, eta aurten ere gaztaina mordoa erre zituzten danbolinean.

### Magosto Eguna, bihar

Biharko, bestalde, Magosto Eguna antolatu dute Galiza Etxekoek. Orain hogeitun urte pasatxo hasitako ohiturari jarraituz, gaztainak eta Albariño ardoa barra-barra banatuko dituzte bihar Galiza Etxeko bazkideek, Nafarroa Plazan, Kultur Etxe aurrean.



# Hip-hop kale kulturari buruzko ikuskizun berritzailea antolatu du Maria Escobedo dantzariak, abenduaren 17rako

Izen handiko dantzariak eta Elgoibarko Dance&Smile taldeko gazteek parte hartuko dute

Ikuskizun berritzailea eta aitzindaria izango da, hemen inguruan ez delako era honetako besterik egiten. Esan beharrik ez dago, beraz, kaleko kulturaren erakusleihen bihurtuko dela egun horretan Elgoibar”, aurreratu du Maria Escobedo *Elgoibar Urban Show* ikuskizunaren bultzatzaile nagusiak. Kaleko kultur espresioak bazten ditu Hip-hop-ak, dantza eta musika aukera ezbedinak besteak beste, eta estilo horietako asko ikusi eta entzuteko aukera izango da abenduaren 17an Herriko Antzokian eskainiko duten ikuskizunearan. Ordubete pasatxoko saioa izango da, eta sarrerak gaur jarriko dituzte salgai Elgoibarraren eta inguruko hainbat herritan. Elgoibarraren, Olaizaga kiroldegian, Iriondo Kirolak dendan eta Toletxe tabernan eskuratu ahal izango dira, 6 eurotan. Egunean bertan ere izango da sarrerak erosteko aukera, 8,5 eurotan.

Bost talde igoko dira oholtzara: Dance Day (Mariak berak ere dantza egiten du talde horretan), Angel Martin teledibistako *Fama*



saioko lehenengo edizioko dantzaria, Crazy Hospital Bilboko breakers taldea, Asier Estanconaren Riu proiektua eta Dance&Smile. Kale kulturaren munduan izen eta ospe handiko taldeak dira lehenengo laurak, eta bosgarrena, berriz, Maria Escobedoren Elgoibarko ikasleek osatutako taldea da. Iaz hasi zen Escobedo Elgoibarraren eskolak ematen, eta urtebeteren buruan, lau ikasle izatetik 23 ikasle izatera iritsi dira. “4 urtetik 36 urtera bitarteko ikasleak dira, kaleko kulturaren denentzako lekua dagoelako”, dio. Kiroldegian

ematen ditu eskolak, eta interesa dutenek han eman dezakete izena, edo [m\\_danceandsmile@hotmail.com](mailto:m_danceandsmile@hotmail.com) helbidera idatzita.

## Ikuskizuna eta jaia

Abenduaren 17an Herri Antzokian eskainiko duten ikuskizuna eta gero, Toletxen jai handi bat ere izango dela aurreratu du Escobedok, eta han saio horretan parte hartuko duten dantzari guztiak izango direla. “Herritar guztiak daude gonbidatuta”, gehitu du.

## Karakate kultur elkartekoek 170 perretxiko mota bildu zituzten urteroko erakusketarako



Azken egunetako hego-haizea zela-eta, perretxiko erakusketa antolatu ahal izateko ale gutxi batuko zituzten beldur ziren aste hasieran Karakate elkarteko kirolak, baina bildu zituzten, eta ez gutxi gainera. Aranzadi Zientzia Elkarteko adituek lau orduko gora behar izan zituzten inguruko mendietan batutako perretxikoak multzokatu eta izendatzeko, eta 170 perretxiko mota baino gehiagorekin osatu zuten azkenean erakusketa.

Kultur Etxeko sotoan jarri zituzten denak ikusgai, eta jende ugari ibili zen atzera eta aurrera, bereziki domeka goizean. Astelehenean, berriz, Jose Agustin Olsolok hamaika azalpen eman zizkien 140 gaztetxo baino gehiagori.

## Gorka Salmeronen argazki erakusketa hilaren 27ra arte

Gorka Salmeronen argazki erakusketa antolatu dute Ongarrik eta Elgoibarko Kultura Sailak. Eskarmentu handiko argazkilaria da Salmeron, bere jarduna teknika edo euskarri jakinetara mugatzen ez duen artista. Azken urteotan, eskultura, pintura, grabatua eta beste hainbat teknika landu ditu, eta oraingoan, sakelako telefonoa izan da bere lanabesa. *Egunerokoak* jarri dio izenbura erakusketari. Izan ere, eguneroko gertaera eta egoez islatu ditu Elgoibarraren erakusgai jarriko dituen lanetan.

Erakusketa gaur zabalduko da, eta hilaren 27ra arte egongo da ikusteko aukera, astelehenetik zapatuta 19:00etatik 21:00etara.

# SANTI MAIZTEGI

Antxitxikaria

**Juan Mugerzak irabazi zuen 1919. urtean Behobia-Donostia lasterketaren estreinako edizioa 1:17:50 denborarekin. Ordu-tik hona, makina bat elgoibartarrek hartu dute parte proba ezagun horretan, baina inork ez du lortu Santi Maiztegik 1992an egin zuen marka (1:04:55) hobetzerik. Elgoibarko 74 lagunek eta hamar mendarorrek eman dute izena domekan egingo den lasterketarako. (Elkarrizketa osorik irakurtzeko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net))**

**“Atletismoan hasi nahi dutenentzat tentazioa da Behobia-Donostia”**

**Behobia eta Donostia arteko bidea azkarren egin duen elgoibartarra zara. Sekulako marka (1:04:55) egin zenuen 1992an.**

Hala da, bai. Une hartan, baina, hobeto egin nezakeen sentsazioarekin geratu nintzen. Ordu bat eta hiru minuturen bueltan ibiltzeko asmoa nuen arren, behar bezala prestatu gabe joan nintzen, eta, ondorioz, hanketatik oso justu amaitu nuen. Gainera, horrelako distantzia luzeko proba batean parte hartzen nuen lehen aldian izateak ez zidan lagundu. Kros denboraldia izaten zen nire helburua, eta irailean hasten nituen entrenamenduak. Lagun batek elkarrekin egiteko eskatu zidalako egin nuen urte hartan Behobia, prestaketa pixka bat bizkortu ostean. Probaren bigarren zatian igarri nituen prestaketa aurreratu izanaren ondorioak. Lehen zatia oso fresko pasatu eta gero, Lezora bidean hasi zitzaidan hankako mina. Amaitzea lortu nuen arren, zizko eginda ailegatu nintzen helmugara (18. postuan sailkatu zen, Diego Garcia irabazlearengandik 4 minutu eta 33 segundora). Huraxe izan zen nire estreinako Behobia, eta azkena.

**Estreinako aldi horrelako marka egin eta ez zenuen gehiago probatzerik nahi izan!**

Nahi ez izatea baino ezina izan zen gehiago. Lesio asko izan nituen bata bestearen atzetik. Urte dezente beranduago, lagun bati laguntze aldera korritu nuen berriz Behobia, baina dortsalik gabe eta erlojuarekin lehiatzeko asmorik gabe.

**Zein aholku emango zenioke Behobian lehen aldiz parte hartu nahi duen bati?**

Lasai-lasai hasteko esango nioke, Lezoraino (12. kilometroan) ailegatu arte bai behintzat. Handik aurrera, indarra, gogoia edo abilezia baldin



badauka hasi dadila martxa bizkortzen. Eta aholku funtsezkoena: norbere eritimoan ibiltzea.

**Eta markaren bila doan bati?**

Antzerako zerbait. Pasaiaiko portuan, 13. eta 16. kilometroen artean dago, nire ustez, marka on baterako giltza. Horraino ondo ailegatuz gero, egurra ematen hasi eta nahikoa tarte dago denbora on bat egiteko. Hori bai, kilometro lau horietan eritimoa bizkortuz, asko irabazi daitekeen bezala, asko galtzeko arriskua ere badago.

**Zer iritzi duzu Behobiak hartu duen dimentsioari buruz?**

Nik egin nuenean 8.000 lagun izan ginen, eta gehiegixko iruditu zitzaizkidan. Orain 20.000 izango direla uste dut. Saltaka egiteko lasterketa deserosoa begitantzen zait. Ia bosgarren kilometrorra arte saltaka egin ezinda, bata bestearekin erdi bultzaka joan behar horrek ez nau bate-re erakartzen. Irteera baino dezente lehenago mugitu gabe zain egon behar horrek ere ez; txiparekin-eta asko hobetu bada ere arlo horretan. Gauza onak ere baditu, hala ere, Behobiak. Gutxi ibiltzen den jendearentzat edo lehen aldiz parte hartu nahi duenarentzat lasterketa aproposa da oso, daudenetan onena, esango nuke; sekula ez zara-eta bakarrik geratuko. Bakardade horren beldurrez ez dute parte hartzen askok antzerako beste proba batzuetan. Behobia, aldiz, atletismoan hasi nahi duen edonorentzako tentazio modukoa da.

**Krosetan ibiltzen zinela aipatu duzu. Zein zenituen kuttunenak?**

Mugerza krosa, dudarik gabe. Kadeteetan hasita makina bat memorial Mugerza dauzkat hanketan; Lerunen zein Mintxetan. Kros denboraldia amaitzen zenean, udan, pistan ibiltzen nintzen. 5.000 eta 10.000 metroko lasterketetan ibiltzen nintzen, eta, noizbehinka, 1.500 metroko bat edo beste egiten nuen.



# Ainhoa Lendinezek irabazi du Antxintxika Krosa emakumezkoetan

Gizonezkoetan Josean Ruiz izan zen lehen herritarra

**A**inhoa Lendinezek irabazi du Soraluze eta Bergara artean egiten den Antxintxika Krosa, emakumezkoetan. Korrikalari elgoibartarrak 40 minutu eta bost segundo behar izan zituen hamar kilometroko ibilbide aldapatsua egiteko. Gizonezkoetan, bestalde, Josean Ruiz izan zen elgoibartarrik bizkorrena 34:34 denborarekin, eta sailkapen nagusiko zazpigarren postuan sailkatu zen.

Antxintxika Krosak sekula baino partaide gehiago izan ditu aurrean. Guztira 570 lagunek parte hartu zuten, tartean 29 elgoibartarr eta lau mendaroar.



Argazki gehiago eta sailkapena ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

## Martitzenera arte egongo da 10 baik antolatutako bertso afarirako txartelak erosteko aukera

10 bai taldeak bertso afaria antolatu du azaroaren 19rako, eta datorren martitzenera arte egongo dira txartelak salgai Lanbroa, Jai-Alai, Toletxe eta Gorbea tabernetan. Hamar koadroko frontoiaren beharra aldarrikatzeko asmoz antolatu du taldeak bertso afaria. Baltzola anaien trikiti doinuek lagunduta, Plaza Handian hasiko dute triki poteoa arratsaldean, eta 21:00etan batuko dira afaltzeko Basarte elkartean. Uxue Alberdi, Aitzol Barandiaran eta Mikel Olaizolak jardungo dute bertsoetan.

## Iñaki Gabilondori babesak eskaini zioten taldekideek Mintxetan



Iñaki Gabilondo kadete mailako jokalariai babesak eskaini zioten taldekideek zapatuan, kadete mailako bi taldeen arteko derbia hasi aurretik. Bi taldeetako jokalariai "animoak Iñaki" jartzen zuen kamiseta jantzita irten ziren berdegunera, jokalariai animuak emateko. Iñaki Gabilondok eskuin zangoko tibia eta peronea puskatu zituen Aretxabaletaren kontrako partidaren. Lesio gogorra da, baina Klubak esandakoaren arabera, datorren urte hasierarako jokatzeko moduan egongo da Iñaki.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Sestao 4 – Haundi 1 (3. maila)  
Elgoibar 3 – Urnieta 0 (Erreg. pref.)  
Elgoibar 5 – Modragon 1 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 2 – Elgoibar 6 (Kad. A eta Kad. B)  
Elgoibar 1 – Aretxabaleta 3 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 3 – Eibar 2 (Txiki)  
Elgoibar 3 – Amaikak Bat-Mutriku 4 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 9 – Lakuntza 2 (Nazional B)  
Goierri 2 – King-Kong 3 (Jub.)

### ESKUBALOA

Hegialde Auto 23 – Alkorta Elg. 32 (Sen. mut.)  
Tolosa 49 – Beristain Elg. 27 (Jub. mut.)  
Bereazoa Aloña 16 – Txarriduna Elg. 26 (Kad. mut.)  
Aloña Mendi 13 – IMH 28 (Kad. neska.)  
Aterpe Elg. 6 – Arrate 52 (Inf. mut.)  
Bankoa Elg. 35 – Arrasate 22 (Inf. mut.)  
Aloña Mendi 9 – Astigarraga Elg. 22 (Inf. neska.)  
Ikus Elg. 19 – Arrate Amaña 20 (Inf. neska.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13  
10:00 Elgoibar – Bergara (Inf. Txiki)  
11:45 Elgoibar – Urki (Kad. A)  
16:30 Haundi – Santutxu (3. maila)

### ARETO FUTBOLA (Kirodegian)

Zapatua, 13  
11:15 King-Kong – Intxaurren (Jub.)

### ESKUBALOA (Kirodegian)

Zapatua, 13  
12:30 Astigarraga Elg. – Aloña Mendi C (Inf. neska.)  
16:00 IMH Elg. – Bartolo taberna (Kad. neska.)  
17:30 Txarriduna Elg. – Usurbil (Kad. mut.)  
19:00 Beristain Elg. – Arrate (Jub. mut.)  
Domeka, 14  
9:30 Elgoibar – Pulpo (Aleb. mut.)  
10:45 Alkorta Elg. – Ordizia (Sen. mut.)

## Morkaikoren hausnarketa batzarra, bihar

Morkaikok bihar egingo du elkarrean etorkizuna erabakitzearen hausnarketa bilera, eta 37 lagunek hartuko dute parte. Hala ere, nahi duenak Morkaikori buruzko iritziak emateko aukera jarri du zuzendaritzak. Iritzi horiek [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera bidali daitezke edo bestela, 676 547 524 telefonora deituta.

# SANLO FAMILIA



*Goiko erretratua ikustea besterik ez dago eskubaloiak Elgoibarren daukan indarrak ohartzeko. Familia handia osatzen dute Sanloko kideek eginiko lan handia dago. Denboraldi berriari begira, Sanloren bazkide laguntzaile egiteko kanpaina jarri dute martxan.*

**S**anlo eskubaloi taldeak ekin dio aurtengo denboraldiari, eta ez edonola, gainera. Hamaika talde dituzte aurtun federatuta, eta beste lau eskubaloi eskolan. Horiematik zortzi neskenak dira, eta zazpi mutilenak. Guztira, 222 jokalaria ari dira eskubaloian jokatzen, 130 neska eta 92 mutil.

Zenbakiei begiratuta, neskak gehiago direla ikusten da: “Neska asko etortzen dira eskubaloian jokatzerara, eta euren kabuz etortzen dira, gainera”, esan dute zuzendaritzako kideek. Mutilen kasua desberdina dela aitortu dute. Elgoibarko mutilen lehen aukera futbola izaten da bereziki, eta eskubaloia bigarren kirola izaten da beraiantzat. Hala ere, jokalaria oso onak irteten direla azaldu dute. Horren erakusle da Elgoibarko hainbat jokalaria iritsi direla Asobal Ligara. [Gaur egun, Elgoibarko harrobitik irten zen Unai Arrietak dihardu Asobal ligan jokatzen]. Era berean, maila altuko beste talde batzuetan ere badira El-

## **Eskubaloia mutilen lehenengo kirol aukera izatea da Sanloren erronka nagusietako bat**

goibartik irtendako jokalaria, esate baterako, Arraten edo Zumaiako Pulpo taldeetan. Dena dela, mutilen kopurua handitzea eta eskubaloia ere mutilen lehenengo aukera izatea da klubaren erronka nagusietako bat.

Eskubaloiak indar handia hartu du Elgoibarren. Azken denboraldietan Gipuzkoako edo Euskadiko Txapelketako tituluren bat eskuratu izan dute, eta gainera, azken urteetan Euskadiko eta Espainiako fase finalak Elgoibarren antolatuta dituzte, jubenil eta kadete mailetan. Giro bikaina sortu izan da horren

harira, eta horrek jendea animatzen du Sanlora. Baina, klubari benetan eusten diona ilusioa da. Borondatez eginiko lana da nagusi, eta ilusioak ematen die aurrera egiteko indarra. Zuzendaritzako kideek eta entrenatzaileek borondatez egiten dute lan, eta eskerrak eman nahi dizkiete klubari laguntzen dieten guztiei: “Ezin dugu ahaztu, eta benetan eskertzekoa da herriko dendeak, lantegiek eta Patronatuak ematen diguten laguntza”.

Orain dela hogeitau urte inguru sortu zuten kluba. Aurredenboraldia Sallobentera korrika eginez hasten zuten, eta hortik hartu zuen klubak Sanlo izena. Arazoak arazo, eta zailtasunak zailtasun, aurrera darrai Sanlok bere ibilbidean, eta klubak jakinarazi duenez, giro “ezinhobea” daukate gainera. Iazko denboraldi amaierako festan 400 lagun inguru batu ziren, eta hor ikusten da klub soil bat baino gehiago dela Sanlo; familia bat da.





okalarriak, entrenatzaileak, gurasoak, ikusleak... Herritar asko biltzen ditu eskubaloiak. Argazki erraldoi honen atzean, borondatez eta ilusioz

## Sanloren Bazkide Laguntzaile kanpaina

Azken urteotan indar handia hartu du Sanlok, eta urteik urtera jende gehiago sartzen da klubean. Jokalari, entrenatzaile eta herritarrez gain, taldeei izena ematen dieten babesleak ere baditu klubak: Astigarraga kirolak, Grupo Eibar, Ikus optika, Bankoa, Aterpe taberna, Txarriduna hotela, Lauko, IMH, Beristain, Alcorta eta Tecnifuelle. Hala ere, zuzendaritzako kideek herrian oihartzun handiagoa lortzea nahi dute, eta horretarako, Sanloren Bazkide Laguntzaile kanpaina jarri dute martxan. Laguntzaile txartela atera dute, eta herritar guztiak izango dute txartel hori erosteko aukera. Hogei euro balio ditu txartelak, eta erosten duenak %10eko deskontua izango du **Astigarraga** kirol dendan, **Ikus** optikan eta **Lete** jantzi-dendan egindako erosketan guztietan. Txartelak eskubaloi denboraldi guztirako balio du. Sanloko zuzendaritzakoek herritarren laguntza eskatu dute, eta txartela erosteko eskaera egin dute, herriko kirol elkarte bati laguntzeaz gain, merkataritza sustatzeko modua ere badelako.

**20€** DEITU ZENBAKI HONETARA **943748921**  
an **LOR DEZAKEZU TXARTELA**

**%10eko**  
**DESKONTUA**

**Denboraldi amaiera arte balio du txartelak**

FEDEROPTICOS  
**IKUS**

CASA  
**ASTIGARRAGA**

GYSX  
**SPORT**

**LETE**  
Erraza Denda

Elgoibarko **Sanlo** EKT

ESKUBALOI TALDEA

**LAGUNTZAILE 10-11**

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordutan. ☎ **678 972 690**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **673 875 123**
- Ikasle gaztea asteburuetan lan egiteko prest: ostalaritzan edo umei ikasten laguntzen. ☎ **608 686 814**
- Gizon gaztea txofer lanak egiteko prest. 3.500 kilora arteko ibilgailuak gidatzeko baimena. ☎ **650 538 274**

**ESKAINZA**

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea baloratuko da. ☎ **669 977 225**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ **943 743 196**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Erdigunean, eroso. ☎ **943 740 628**
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Altzariekin, berritua eguzkitsua. Igogailuarekin eta bizitzera sartzeko moduan. 130.000 euro. ☎ **943 742 131 (20:00etatik aurrera)**
- Pisua salgai Santa Klaran. 96m2 eta dena kanpoaldera begira. Ganbara eta igogailua. ☎ **664 585 369**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. Autoa garbitzeko aukera eskaintzen du, garbigailua dauka. Oso merke. ☎ **679 843 332**
- Garajeak alokatzen dira Jausoron, Udaletxearen aldamenean. ☎ **672 422 237**

**PARTIKULARRAK**

- LHko eta DBHko klase partikularrak ematen ditut, etxeetan. Elgoibarren eta Mendaron. ☎ **606 257 620**
- Gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke. Talde txikiak. Esperientzia daukat. ☎ **943 744 206**

**BESTELAKOAK**

- Umearen txamarra beltza galdu dut, kiroldegia eta Basarte artean. Norbaitek aurkitu badu, utzi dezala Udaltzaingoa.



**Idama**



Urriko irabazlea:  
**EULALIA SIERRA**

Azaroko saria:  
**SOLARIUM BONOVA ETA GEL ESFOLIATZAILEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26




**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Asteleheneretik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

ESKERTZA

**JOSE LUIS IRIONDO LOPETEGI**



2010eko azaroaren 1ean hil zen Mendaron, 47 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







• Zorionak, **Nora**, asteazkenean 2 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.

• Lau, lau, lau, sardina bakailau! Zorionak, **Naiara**, eta muxu handi bat, gurasoen partez.

• Zorionak, **Manex**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat aitona eta Mikelen partez.

• Zorionak, **Telmol** Zazpi patxo haundi zuretzat, potxolo!!

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri beharduzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, [edobarren@elgoibarkoizarra.com](mailto:edobarren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## BARREn aldeko **BONOAK** erosteko:

- **BARREN** astekarian (Nafarroa plaza)
- Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)
- E-postaz eta telefonoz:

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)



Bonoa erosten duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dugu

BARREn aldeko bonoak saltzeko prest al zaude? Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

 **ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



Ni ere banaiz  
**BARREN!**



## OKINDEGIA

14 domeka **FOTERO**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

- 12 Etxeberria (Santa Ana)
- 13 Fernandez  
Goizez: Garitaonandia-Bida.
- 14 Fernandez
- 15 Yudego
- 16 Zabaleta
- 17 Etxeberria (Errosario)
- 18 Ibañez
- 19 Garitaonandia- Bidasolo

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 12 barixakua

### Erakusketa

19:00 'Egunerokoak'

Gorka Salmeron argazkilariren azken bilduma jarriko du ikusgai Ongarrik Kultur Etxean.  
Azaroaren 27ra arte.

## 13 zapatua

### Jaia

11:00 Magosto Eguna

Gaztainak jateko eta Galiziako ardo edateko aukera izango da bihar Nafarroa Plazan, Galiza Etxeak antolatuta.

### Elkarretaratzea

12:30 Arnaldo askatu,  
politika askatu

Arnaldo Otegi babesa emateko kontzentrazioa egingo dute.  
Plaza Handian.

## 18 eguena

### Musika

19:15 'Musikalean'

Musika Eskolako trikitilarien emanaldia.

## 19 barixakua

### Musika

19:30 Kalejira

Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

### Musika

19:30 Kontzertua

Santa Zezilia kontzertua egingo dute Musika Eskolan. Ekitaldian bertan ikasturteko diplomak banatuko dituzte.

LUDOTEKAKO EKINTZAK	
	<b>BARIXAKUA 12</b> Jolas libre 17:00
	<b>ASTELEHENA 15</b> Super Mario karts 17:00
	<b>MARTITZENA 16</b> Kakalardoek pokerra 17:30
	<b>EGUAZTENA 17</b> Sukaldaritza tailerra (HH5-LH3) 17:30
	<b>EGUENA 18</b> Sukaldaritza tailerra (LH4-LH6)

GAZTELEKUKO EKINTZAK	
	<b>BARIXAKUA 12</b> Topagunea 17:00
	<b>ZAPATUA 13</b> Capoeira tailerra
	<b>DOMEKA 14</b> Ping-pong ligaxka 17:00
	<b>MARTITZENA 16</b> Eskulanak 17:00
	<b>EGUAZTENA 17</b> Txoko pribatua 17:00
	<b>EGUENA 18</b> Sukalde txokoa 17:00

### «El americano»

12, barixakua: 22:15  
13, zapatua: 22:15  
14, domeka: 19:00  
15, astelehena: 21:30

### «El aprendiz de brujo»

14, domeka: 16:30

### «Ella, una joven china»

(Ongarri zine-kluba)  
18, eguena: 21:30



## “Kalitate-ziurtagiria eguneroko lana errazten duen sistematizazioa da”

Sosola baserria historia bizia da. Haren paretak XI. mendekoak dira, eta atea zein gainerako egiturak, berriz, XV. eta XVI. mendeetakoak. Erdi Aroko etxe honen zeregina izan da euskal kultura eta baloreak belaunaldiz belaunaldi ematea. Arreta handiz zaharberritu dute, eta berritze hori oso lotuta dago gaur egungo jarduerarekin, landetxean mota guztietako tresnak gorde direlako, eta ogia, gazta eta sagardoa egiten dutelako nekazaritza ekologikoaren arauen arabera. Esther Gisasola bertako arduraduna da, Sosolatarren tradizioaren jarraitzaile zintzoa. Eta pasio handiz bizi ditu baserriaren ezaugarriak.

**Zergatik erabaki zenuten turismo arloko kalitate-sistema batekin lan egitea?**

Bi arrazoi egon dira, batez ere. Alde batetik, lehiakorrakoak izan nahi genuen, eta ziurtagiriak horretarako aukera aparta ematen zigun. Bestetik, gure helburua beti izan da gero eta zerbitzu hobea ematea, eta horretarako biderik onena hobekuntza etengabea bilatzea da. Hau da, bikaintasuna eskaintzea.

**Zein onura edo abantaila ekarri dizue ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak?**

Eguneroko lanak arautu ahal izan ditugu ziurtagiriari esker. Hau da, eguneroko eginbeharrak zein diren zehaztu ahal izan dugu, eta hori oso garrantzitsua da funtzionamendurako. Bestetik, etengabe hobekuntzarako urratsak eman ahal izan ditugu horrela. Bi alderdi horiek oso garrantzitsuak izan dira, biak izan direlako abantailak.

**Behin ziurtagiria ezarrita, zein izan dira barne hobekuntzak? Eta antolatetan?**

**Kudeaketan? Azpiegiturretan?**

Egia esanda, hobekuntzak kalitatearen ziurtagiria jaso baino askoz lehenago ezarrita genezukan, aspaldian ari ginelako kalitatearen bila, baina orain, ziurtagiriarekin, kalitate programak ezartzen dituen azterketak aurreko maila horri eustera eta hobetzeraz bultzatu gaitu.

**Hobekuntza hauetatik zeinekín gelditzen da gusturago bezeroa?**

Esango nuke ez dagoela bat bakarrik nabarmentzeko modukoa. Denek, bere osotasunean, lagundu dute bezeroa gusturago senti dadin.

**Laburtu esaldi bakar batean kalitatearen ziurtagiriaren onurarik handiena.**



Eguneroko lana errazten duen sistematizazioa da. Gomendatuko zenieke beste enpresariei kalitatearen ziurtagiriarekin lan egitea?

**Zergatik?**

Bai, dudarik gabe. Azken finean, kalitateak gauzak hobetzen laguntzen ditu, eta hori, epe ertainera, errentagarria da.

**Uste duzu turismoaren ‘Q’ ziurtagiriak laguntzen diola enpresari lehiakortasunari begira?**

Bai, dudarik gabe. Zergatik? Aurretik aipatutako arrazoiengatik.

**Zein da, zure ustez, turismo-kalitatearen ‘Q’ ziurtagiriaren kudeaketaren barruan landutako gaitasun baliagarriena edo garrantzitsuenena?**

Ez nuke bakar bat nabarmenduko. Esango nuke denak, orokorrean, baliagarriak direla, denen artean osatzen dituztelako aipatu ditugun onura edo abantailak.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismoarako Euskal Agentziarekin batera, enpresariengana esku jarri ditu lehiakortasunean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak. Adibidez:

**Jardunbide Egokien Egitasmoa.** Helburua da enpresariengana profesionalizazioa hobetzea, eta helmuga turistikoa gaitasun kontzientziazteaz. Euskadin 323 establezimenduk dute Turismo Kalitatearekiko Konpromisoa Agiria.

**Turismo Kalitatearen ‘Q’ egitasmoa.** Egitasmo honen bidez bezeroen gogobetetasuna eta haien aurreikuspenak beteko dira ziurtatzen da. Euskadin 278 ostatak edo jatetxeek dute ‘Q’ ziurtagiria.

**Bikaintasunaren EFQM Ereduearen egitasmoa.** Egitasmo honen bidez kalitatearen bikaintasuna lortzeko bideak jartzen dira. Euskadin 16 establezimendu parte hartzen ari dira.

**EUSKADI** Goza ezazu

**Jarri Turismo Kalitatearen ‘Q’-a zure establezimenduan!**



94 6077586  
94 4047470

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)  
[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

**BASQUE TOUR**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**EUSKALIT**

Elaboración de Euskal Turismoaren Kalitatearen Egitasmoa





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**  
Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
[www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

